




SAN ISIDRO GUADALUPEKO ZELAIAN



SAN ISIDRO GUADALUPEKO ZELAIAN

Azala: Guadalupeko Andre Mariaren santutegiko San Isidroren irudia (Hondarribia). Argazkia: Juan Antonio Sáez





Hondarribiko alardeko hatxeroen eskudra 1928an, Santa Mariako ate azpitik igaroz. Alardea Hiriko ondare kultural immaterialaren funtsezko atala da. ("Alarde del 8 de septiembre : los típicos zapadores" / [Sagarzazu]. - Museum Sagarzazu, [1928]. - Hondarribiko Udala. Udal Artxiboa).



Aste Santuko prozesioa, Hiriko ondare kultural immaterialaren beste elementuetako bat. ("Procesión de Semana Santa : Santa María Magdalena cubierta de tristessa" [sic]. - [s. l.] : MD, [s. a.]. - Hondarribiko Udala. Udal Artxiboa.

SAN ISIDRO, ONDARE INMATERIALA

UNESCOK gure arbasoengandik jasotako eta ondorengoei transmititutako tradizio edo adierazpen bizi guztiei ondare immaterialaren izendapena aplikatzen die. Horren adibide dira ahozko tradizioak, erritualak, ikuskizunak, gizarte-usadioak, jai-ekitaldiak, artisautza, etab.

Balio erantsi garrantzitsuena, kultura-adierazpen hutsaren gainetik, belaunaldiz belaunaldi transmititzen diren ezagutzen eta tekniken ondarea da.

Kultura-ondare immateriala ondare hori sortzen, mantentzen eta transmititzen duten komunitateengandik aitortuta dago. Integratzailea ere bada, izan ere, adierazpen asko, hainbat moldaketarekin, munduko leku askotan gertatzen dira (adibidez, prozesioak, estropadak, bertsolariak, etab.).

Aldi berean tradizionala eta garaikidea da, iraganeko ekarpe-nei, belaunaldi bakoitzak gehitzen dituen eguneratzeak gaineratzen baitzaizkie.

UNESCOK berak ondare immaterialaren elementu berezi batzuk babesten ditu balio "mundiala" dutelako. Tokiko elementuak udalek babestu ohi dituzte, eta ahal duten guztia egin behar dute elementu horiek bizirik eta "benetako" mantentzeko, baina egiazko ekintza positiboa gizartetik bertatik datorrena da.

San Isidro eguna Guadalupeko, Hondarribiko, landa-inguru-nean ospatzeko tradizioa hiriko kultura-ondare immaterial aberatsaren beste elementu apal bat da, haren jarraipena adinekoen belaunaldiak zein gazteenak bilatu behar dute eta azken hauek, harrera egiteko eta ondorengoei transmititzeko interesa ere erakutsi beharko lukete.

Hondarribiaz haraindi, Euskadi osatzen duten hiru probintzietan egun hori ospatzen duten herriak daude, batzuk aipatzearren: Arespalditza Araban, Larrabetzu Bizkaian eta Tolosa, Deba eta Irungo bizilaguna, Gipuzkoan. Espainiako estatu osoan, Madrildik haratago, Gaztela eta Leon, Extremadura eta Kanariar Uharteak bezalako autonomia erkidegoek ere egun hau ospatzen dute. Ozeanoaren beste aldean, Mexikok, Txilek edo Argentinak ere santu hau gurtzen dute.

Erlijio kutsu handiko ekintza bada ere, egia da pertsona bakoitzak - bere sinesmenak alde batera utzita - balio eta esanahi pertsonal bat eman diezaiokeela - laikoa ere bai -, bere pentsaerarekin koherente izan dadin.



SAN ISIDRO

Isidro aurkitzeko **Erdi Aroraino** joan beharko genuke; zehazki, XI. mendearen hasieran, Iberiar penintsula oraindik islamiar agintepean zegoenean. Kordobako kaliferria erresuma edo "taifa" txikietan zatitua zegoen, eta kristau errekonkistak Iberiar penintsularen iparraldeko herena baino ez zuen kontrolatzen.

Gure pertsonaia **Madriren 1082an** jaio zen, edo, hobeto esanda, Mayriten, Toledoko taifan integratutako herria baitzen. Zehazki, San Andres errebelean kokatuko dugu. Hasiera batean, hango hilerrian 1172an lurperatua izan zen.

Erresuma kristauak kontrolatzen zituzten lurraldeetatik hegoalderantz aurrera egitearen ondorioz, Madril, 1085 ean Alfontso VI. aren (Gaztela eta Leongoa) eraginpean erori zen eta honek tokiko gobernua Vargas abizena zuen familia bati eman zion.

Isidro, beraz, islamiar eta kristau eraginak nahasten ziren lurralde batean bizi izan zen, ia mende batean zehar mugaren hainbat atzerapauso eta aurrerapenen ondorioz nahastuak mantendu ziren, 1162an Gaztelako Fernando II.ak behin betiko Madril okupatu zuen arte.

Isidro, arabiarrek menderatutako lurraldean bizitzeagatik, orokorrean, **mozarabiarra** bezala hartzen da, hau da, jatorri hispaniar-bisigododun kristau "arabizatua".

San Isidro "**laborari**" deituraz ezaguna izan da, bere familiak lur propiorik ez zuenez, jada aipaturiko Vargas familiaren jabetzako soroak landu zituen eta hortik datorkio. Batez ere bere gaztaroan, arabiar kulturen hedapen handia zuten ezagutza teknikoetatik, putzuzain eta ur-bilatzaileran lanetatik kanpo ez zen egon.

Emakume batekin ezkondu zen, eta, denbora aurrera egin ahala, emakumea ere santutasuna eskuratu zuen (Santa Maria de la Cabeza), eta, informazio iturri urriek diotenez, gutxienez, seme bat izan zuen. Informazio iturri horien artean, "**San Isidroren Kodexa**" deitutakoa, 1504an, etorkizuneko santuaren gorpuzki ustelgabeak (irakur momifikatuak) zituen kutxa batekin batera aurkitu zena, nabarmentzen da.

Dirudienez, otoitz eta ekintza onetara emana izan zen, eta ez omen zen zaila bere lantokitik gertu dauden ermitetan otoitz egiten ikustea. (mihi txarrek bere benetako asmoa otoitza ez zela zioten arren, goldatik eskapatzea baizik).


Aipatutako Kodexak hagiografia bat du (edo santu bati buruzko konposizio biografikoa), non, bere bizitzako datu gutxirekin batera, bost mirariren berri ematen duen. Oso gutxik dirudite hain bizitza santurako, baina, mendeak igaro ahala, herriaren suhartasunak lau ehunekoraino igoarazi zituen, kopuru ez oso sinesgarria eta, horregatik, "mirari" santutzat hartzen da.




Guadalupeko Andre Mariaren Santutegiko San Isidro, Merlo y Cortés abizena duena. Argazkia: Juan Antonio Sáez.



Prozesioaren hasiera Santutegiaren barruan. Atzealdean, Guadalupeko Ama Birjinaren irudia duen erretaula nagusia. (J. A. Sáez).



San Isidoren Kodexaren orrialde eder bat (1270. or) Erdi Aroko latinez idatzia eta gaztelarazko letra gotiko borobila erabiliz. Bere egileak “Juan Diácono” bezala sinatzen du, autore batzuek Juan Gil de Zamorarekin identifikatzen duten izengoitizat hartzen da, eta beste batzuek, berriz, kodize anonimotzat hartzea nahiago dute. 28 orrialdeko hedadura du. (Almudenako katedralaren Museoa. Madril).



Guadalupeko santutegia Jaizkibel mendian dago, Hiriko alde zaharretik bost kilometrora. Bere inguruan, gotorleku handi bat kontserbatzen da - Guadalupeko gotorlekua -, 1900. urtean inauguratua. Landa ingurune lasaia da. (Argazkia: Juan Antonio Sáez).

Bost mirari “originalak”, nolabait, arabiar eta kristau tradizioek elkarrekin parte hartzen dutelako bereizten dira. Horietako bat - Hondarribiarren tradizioa osatzen duten elementuetako baten alderdi batzuk azaltzeko balioko duena – da, hots, Aingeru batzuek maiz soroetako goldea okupatzen zutela, Isidroren otoitza errazteko.

Paulo V.aren beatifikazioa 1619ko ekainak 14an iritsi zen, bere eguna **maiatzak 15ean ezarriz**.

Kanonizazioak, solemneki aitortua izateko, ez zuen denbora askorik behar izan, 1622ko martxoaren 12an Gregorio XV. aita santuak, Inazio Loiolakoa, Frantzisko Xabierkoa, Felipe Neri eta Teresa Avilakoarekin batera egin zuen eta. Baina Vatikanoko burokraziak, geldo fama duenak, errekorra hautsi zuen oraingoan, “Rationi Congruit” kanonizazio buldak, Benedikto XIII.ak 1724ko ekainaren 4an sinatu arte, 102 urte itxaron behar izan baitzuen!

... Agintaritza Apostolikoarengatik, Guri esleituta, zera adierazten dugu: Dekretua, Definizioa, Zehapena, Esleipena, Erlazioa, Estatutua, Emakida eta goian adierazitako gainerako guztia, mila seiehun eta hogeita biko martxoaren hamabitik aurrera, alde guztietan eragina izan eta lortuko dutela, Gregorio horren bidez eta egun horretan, benetan Dekretu - Letrak izapidetu eta aldarrikatu izan babilira bezala, goian adierazi bezala ...

1960an, Agri kulturam buldak, Erroman abenduaren 16an Joan XXIII.a aita santuak emana, San Isidro **nekazarien patro**i izendatu zuen.

... Horrela, bada, Erritoen Kongregazio Santuaren iritzia entzun ondoren, zientzia ziurrez, eta gure aldetik deliberramendu umoa izan ondoren, eta apostoluen ahalmenaren betetasunaz, hizki hauen indarrez eta betirako, SAN ISIDRO Laboraria, Jainkoaren aurrean, nekazarien eta baserritarren patronu zerutiarra, berretsi edo eratu egiten dugu ...

Ez da ahaztu behar **Madrilgo patroia** dela, eta bere gorpuzkiak bere emaztearen gorpuzkinekin batera **San Isidroko Errege Kolegiatan** atseden hartzen dute. “San Isidroren belardiaren” inguruan erromeriak eta berbenak ospatzen dituzte.

Distantzia eta egoera guztiak alde batera utzita, santua nekazarien patro gisa Hondarribian ere omentzen da; ez **belardi** batean, Madril bezala, baizik eta **zelai** batean, “**Guadalupeko zelai**an”, izen bereko Ama Birjinaren santutegitik gertu, Hiriko zaindaria.



SAN ISIDRO OSPAKIZUNA GUADALUPEKO ZELAIAN

Mikel Jauregik Beste Jaiak liburuan, San Isidro jaiia Hondarribian nolakoa den horrela azaltzen hasten da:

San Isidro nekazarien patroia da, ohituraz eta santuaren omenez, egun horretan ezin izaten zen lan egin, eta are gehiago, ezin izaten ziren idiak uztartu, - ezin zitzaizen uztartaria jarri - zorte txarra ekartzen zuen eta.

J. J. Bereauk, 1988ko ekaineko Hondarribia aldizkarian, jaiagun honi buruz gogoratzen duena kontatzen digu:

Txikitatik beti entzun izan dut San Isidro egunean, - nahiz eta aste egunez tokatu- ez zela lanik egin behar egun horretan; ez zirela behirik uztartu behar: egun hori errespetatu behar zela; bestela, zorte txarra izango genuela eta abar... Halare, beti izaten zen norbait ausartagoa edo gogoratzen ez zena edo patroiarri kasu gehiegirik egiten ez ziona, batez ere apaizen begietatik urruti xamar egon ezkerro. Izan ere, egun honek fedea dela eta nahiko mito bait zeukan berekin. Hainbeste aldiz entzuten genuen mirari kontuak, ia beti zerbaiten zain egoten ginen, nahiz eta sekulan iritxi ez, eta gaur egun, zorionez, mirari kontu hori aldenduxea dugu baserritar gehienok. Baina, pentsatu al duzue noizbait, zenbaterainoko edertasuna izango litzatekeen guretzat, leihotik begiratu eta artoa eta gainontzeko gauzak bere kasa etorriko balira...? Errealitatea, ordea, guztiz ezberdina da, hau da, erein eta gutxi eta bestela batez bait da nekazarien lema.

Hondarribian, Guadalupeko Ama Birjinari eskainitako santutegiaren inguruan egiten diren ekitaldiak kontserbatu dira eta horietan, nekazari – patroia omenez, bereziki bertako eta inguruko baserritarrek parte hartzen dute.

Ekitaldi zehatzak, euren ordena eta ordutegiak, urte batetik bestera apur bat aldatzen diren arren, nagusiki **goizeko meza** bat eta santuaren irudiaren **prozesioa** izaten dira. Prozesioa, santutegitik gertuko zelaietan buru den gurutze handiraino egiten da. Batzuetan arrosarioa ere errezatzen da.

1998ko maiatza – ekaineko Hondarribia Aldizkarian, I. Noguera sek eguna horrela laburbiltzen du

Hondarribian, Santua gogoratzeko asmoarekin egiten diren ospakizunak Guadalupeko maldetan prozesio bat eginez hasten dira. Bertan, herriko baserritarrak biltzen dira, beraiantzat egun handia da. Goizean,



San Isidoren irudiaren irteera, lau zamaketarik andetan eramaten dutela. Atzean, kasulla gorriarekin, Guadalupeko Santutegiko kapilaua, prozesioan otoitza zuzentzeaz arduratzen dena. (Argazkia: Juan Antonio Sáez).



Prozesioa, ibilbidearen lehen zatian gurutzea buru duela, Guadalupeko Andre Mariaren gotorlekura sartzeko hormigoizko pistan, izen bereko santutegitik gertu (Argazkia: Juan Antonio Sáez).



Irudia jada belar gainean, Guadalupeko gurutzerantz, ibilbide laburra igaroz. (Argazkia: Juan Antonio Sáez).



Jatorrizko Guadalupeko gurutzea harrizkoa zen, 1876ko abenduaren 31n inauguratu zen. Guadalupeko Ama Birjinaren irudia azken karlistaldia amaitu ondoren santutegira itzuli zela eta, aire zabaleko meza jendetsua egiteko tokia gogoratzeko asmoarekin José Joaquín Ollo apaizak gurutzea hor jartzea sustatu zuen. Gurutzea nabarmentzeko aitzakiarekin, harria zizelkatu zen, eta oinplano oktagonala zuen bost mailako harmaila bat eratu zen. Gerra Zibilean suntsitua izan zen. Gaur egungo gurutzea, hormigoizkoa, 1959koa da, eta jatorrizko idulki edo harmailen gainean altxatzen da. (Argazkia: Juan Antonio Sáez).

prozesioa eta zelai bedeinkapena egiten da. Arratsaldean berriz, bostetatik aurrera, aizkolari, harrijasotzaile, bertsolari eta trikitixen ordua iristen da, Guadalupeko kanpetan giro handia sortzen delarik.

Hondarrbian, gaur egun, jaia antzina izan zenaren isla zurbila da, ez baitu garai batean adina jende mugitzen, nahiz eta herri-herri festa bizia izaten jarraitzen duen.

J.J. Bereauen hitzetan, lehen aipatutako 1988ko Hondarribia aldizkarian,

San Isidro egunak azken urte hauetan, jai giro berezia hartu du Hondarribian, urtero egiten bait da jaialdia Guadalupean.

Goizean, Santa Engrazia Ermitan meza ematen da. Urtean bitan besterik ez da ermita mezatarako irekitzen: San Isidro egunean eta abuztuaren 8an, santaren jai egunean.

70. hamarkadan (XX. mendean), Guadalupeko meza gain, beste zenbait ere ospatzen ziren: bat Kaputxinoen Komentuan, beste bat Monserrateko ermitan (hau ere Kaputxinoek emana) eta Santiagotxon hirugarren bat, azken hau Agustindarrek emana.

Guadalupe Santutegiko kanpaiek egiten diete dei bizilagunei. Ondoren Santuaren irudiarekin prozesioa egiten da: lau gizonek sorbaldaren gainean eramaten dute, eta artoz eta lorez apaindua izan da betidanik, ez ordea gaur egun; artoa **Joxe "Alkiza"** ezagunak espresuki jai horretarako hazia zen, eta gutxienez, lan horretan 61 urte jarraian ibili ohi izan zen.

Ondoren, santutegiko kapilaua edo beste apaiz bat, ibilbidean zehar egiten den otoitza zuzentzeaz arduratzen da, eta landa-produktuekin saskiak daramatzaten emakume batzuk ere badoaz. Prozesioa fededunek kapilauaren otoitzari erantzunez ixten dute.

Prozesioak, santutegiaren atzeko atetik bere bideari ekiten dio, eta, Guadalupeko gotorlekura doan errepideari eta zementuzko pistari dagozkien bi zati labur egin ondoren, azken honetatik desbideratzen da, belarretik sartuz, 1876tik Guadalupeko zelaiaren buru den Gurutze Handirantz doala. Ibilbide honek 300 metro inguruko luzera du.

Beste batzuetan, ibilbidea bikoiztu egiten da, santutegia eta Guadalupeko gotorlekurako sarbidea errepidetik banatzen dituzten 700 metroak zeharkatuz eta ondoren hormigoizko pista batetik jarraituz, gurutzeraino iristeko biratuz, eta handik, oraingoan belarra zapalduz, santutegira bueltatzen da.

Behin Gurutzearen inguruan, apaizak lurra eta landako fruituak lau puntu kardinaletarantz zuzenduz bedeinkatzen ditu. Puntu kardinalak saskitxo batean bildutako porruak edo bestelako barazkiek irudikatzen dituzte.



Zeremonia amaituta, prozesioa santutegira itzultzen da, gurutzearen eta haren arteko zelaiko belarra zapalduz. Meza bat ospatzen da eta amaieran Guadalupe Salbea kantatzen da.

Azoka txiki bat deskribatutako ekitaldi nagusien osagarria da. Gozoki-postuez eta tokiko beste nekazaritza-produktu batzuez osatuta dago. Egunari amaiera emateko, herri-kirolen erakustaldia, musika eta bertsolariekin batera gertuko elkarte batean edo, antzinan, santutegitik gertu zegoen kantinan, anaitasun- bazkaria antolatzen da.

J.J Bereauk 1988ko maiatzaren 15eko bazkalondoa hitz hauekin gogora ekartzen digu ...

Arratsaldeko seiak aldera izango zen mahaitik altxatu orduko eta une honetan hasi ziren ilunabarreko ikuskizunak. Lehenbiziko zezenak izan ziren. Ikuskizun polita gertatzen da, Euskal Herrian eta nonahi ere gehiago zabaltzen ari den jolas hau. Badirudi, gaur egun, zezenak gabeko jaialdirik ez dagoela, baina aurten, Guadalupen zezenak bukatzerakoan, zenbait "poni" libratu zituzten. Eta orduantxe hasi zen haurrentzako festa bai... Haur asko zen zaldi txiki hauen gainean ibili nahi zuena, baina ez pentsatu hain erreza zenik, zeren eta zalditxo hauek, txikiak izan arren saltoka eta puztarketa hasten bait ziren mutil eta neska koskorrak bizkar bainera igo baino lehen.

Arratsaldean, askoz jende gehiago biltzen da zelaian, eta herri kirol erakustaldia eta erromeria izaten da: bertsolariak, trikitixa, etab.

J.J Bereauk 1988ko San Isidro eguneko arratsaldeko erakustaldi hori lerro hauetan kontatzen digu:

Azkenik, eta eguna aurrera zijoan heinean, aizkolariak, harrijasotzaileak, bertsolariak eta trikitixa izan genituen denon dibertigarri, harri altxatzen Mendeluko "Tito"-k egin zigun demostrazio polita. Aizkolariak era han aritu ziren jo eta ke gazte-zaharren arteko lehian. Esan daiteke, gazteak nagusitu zirela, baina, urteetan dexente sartua egonagatik Martintxoneko "Patxi Burni"-k erakutsi zigun maixutasu aparta. Bera izan zen zutik zeuden egurrak mozten hoberena. Halaxe ulertu zuen Antolaketa Batzordea ere, eta aizkora uztera dijoanez trofeo bat eman zion. Eta jardunaldia bukatzeko berriro ere bertsolariak eta trikitixa.

Urte bete geroago, San Isidro eguna Guadalupen Hondarribia aldizkarian J.J. Bereauk idatzitako artikuluan irakurri dezakegun moduan:



San Isidroren prozesioaren ibilbidea (700 m), Santutegiaren eta Guadalupeko gurutzearen artean. Ibilbidea ez da urtero berdina, batzuetan 300 metro baino ez baititu egiten, gotorlekuaren sarreraraino heltzea saihestuz eta zuzenean gurutzerantz zuzenduz. (Irudia: Juan Antonio Sáez; Ortofoto de base, Eusko Jaurlaritza).



Santuaren irudia eta segizioaren zati bat Guadalupeko gurutzetik be-deinkapenaren unean. (Argazkia: Juan Antonio Sáez).



Lehen planoan, bedeinkapenerako prest dauden landa-produktuak dituen saskitxoak. Lau garraiolariak, urkiletan anden pisua jasaten dute. (Argazkia: Juan Antonio Sáez).



Prozesioa, Guadalupeko Santutegira itzultzen da, honen kapitela urrutira ikus daitekeelarik. (Argazkia: Juan Antonio Sáez).

Bezperan Joxe Alkiza Zigarrenekoak botatako etxaffero zaratsuek eta goizetik agertu zen eguraldi zoragarriak inoiz baino jende gehiago ekarri zuen Guadalupeko ospakizunetan parte hartzera (...) Urte hau II. Jaizkibelgo Gazta Berrien Lehiaketa urtea zen. Handik pixka batera lehiaketa Euskal Herri osokoa bihurtu zen. Lehiaketa bukatutakoan, Lazkao Txiki eta Joxe Lizaso bertsotan gogotik eta Maltzeta soinu jotzen, ordu bitako plakiyak txorabiatu arte.

Lazkao Txikik San Isidro eguna askotan Hondarribian ospatzen zuen, horregatik, Mikel Jauregik idazten duen bezala

1993an, Lazkao Txiki bertsolaria hil zen, eta Hondarribiak atsekabetu egin zen heriotza hori zela eta, askotan etorria baitzen bertara.

Bertsolariekin zerikusia duen beste datu hau ere Beste Jaiak liburutik atertzen dugu:

1994. urtean, lehen aldiz, emakume bertsolari batek bota zituen bertsoak Guadalupen, Amaia Telleriak hain zuzen ere.

J.J Bereauk jaso zuenez, 1989ko maiatzaren 15ean, izen handiko jendea bertaratu zen:

Baserritarren Hermandadearen bazkarian Rafael Urkola Albisturrenekoa zen mahaiburu. 23 urte daramatza Rafelek Hermandadearen Lehendakaritzan. Harekin batean Alfonso Oronoz Alkatea eta On Jose Etxaide Guadalupeko apaiza ziren. Pertsonaia egokiak karguen aldetik, ohiturari jarraituz, bertsolariak beren lehen bertsoetan armak zorrotzu eta bazkalondoa girotzen hasteko. Kontxita Portu eta Manuel Larrarte zinegotziek ere ez zuten huts egin. Joxe Alkizak, Lizaso zuen ezkerrean eta Lazkao Txiki eskuinean. Bai leku txarrean jarria ere, Alkiza gaixoa! Bataren eta bestearen tiro gurutzatuen artean harrapatu bait zuten errukirik gabe. Apartexego zegoen Prudentxio Arrietak ere ez zuen erasotik libratzerik izan. Traumak goxatzeko Maltzeta eta bere alaba trikitri batzuk jo zituzten eta azkenean Lazkao Txikiren txisteak entzun genituen, kolore eta hizkuntza guztietakoak, Erriberakoak zirenean hango hizkeraz ematen bait zituen jator asko Joxe Migelek.

Arratsaldean, bertsolari nekagaitzen zitzadak eta soinu-joleen doinuak entzutera kirolariak prestatzen ziren. Prudentxio Arrieta izan zen aurkezle trebe. Kirol probetan Lete eta Tito aritu ziren aizkoran, lehenbizikoa irabazle, Arrietaren hitzez "Lete Potente", baina gero Tito han aritu zen 150 kiloko rektangularrarekin eta 100 kiloko zilindrikoarekin, azken hau 15 aldiz bizkarreratuz jendearen txalo beroen artean. Trofeo



bana eraman zuten biok. Bukatzeko, bertsolarien agurra eta ondoren erromeria.

Hondarribia aldizkarian argitaratutako bertso honekin, Lizasok, duela 31 urteko san Isidro eguna, honela agurtu zuen:

Oso gutxitan izaten dira
Holako egun ederrak,
pozak txoratzen azaldu dira
honuntza baserritarrak.
Gaur ez diete kezkarik eman
artuak eta belarrak.
Urte askuan segi holaxe,
Agur guadalupetarrak!

PROZESIOAREN BIDEOA (ESTEKA)

IRUDIA


Irudi prozesionatua, normalean, santutegiaren ezkeraldeko aldarean dago. Aldare hori, jatorrian, Jasokundeko eta Sagarrondoko Andre Mariaren parroki - elizako zutabeetako bati atxikituta zegoen, baina 1914. urtean santutegira eraman zuten, kokaleku berriaren ezaugarrietara egokitzeko egin beharreko berrikuntzak egin ondoren.

San Sebastiani eskainia zegoen, eta santu berari eskainia jarraitzen du, salbuespen batekin: gaur egungo irudi nagusia ez da antzina parrokiaren gurtzen zena, jatorrizko irudiak parrokiaren bertan geratu baitziren.

Gaur egun, san Sebastianen ezkerretara eta eskuinetara, hurrenez hurren, san Isidroren - bera da interesatzen zaiguna - eta frantziskotar abitua duen haur baten irudiak daude, azken honen neurria bere horma-hobiarekiko neurrigabekoa da. Denbora batez, san Isidroren irudiak erretaularen erdiko espazioa hartu zuen.

Gure santuaren **irudi polikromatuak** eskuko golde-sare bat darama ezkerreko eskuan; eskuina, berriz, bularraren gainean jarrita du.

Bere buruak, koroa metaliko batez markoztatua, ile luze uhindua eta bizar gaztaina-kolorekoa du; lepoa, berriz, goleta batez inguratua du. Marroi-koloreko botoidun saia eta galtza motz berdexka janzten ditu. Atzean, kapa urdinxka batez estalita dago. Jantzi guztiak urre-koloreko motibo finez apainduta daude, janzkerari nolabaiteko bereizketa ematen diotenak. Oinetan, botoidun polaina marroiak ditu. Osagarriak ez zaizkio



Juan José Echaide Echeveste (Hondarribia, 1929-2017), gogoan dugun Guadalupeko santutegiko kapilaua 1967 eta 2006 artean. Elias Zafirainen (1919-1967) ondorengoa izan zen eta Alfonso Peyk (2007-2012) ordezkatu zuen. Gaur egungo kapilaua Lucio Francesco Saggiore (2013-) da. (Andrés Arlanzónen argazkia. Gure Gipuzkoa CC).



Lazkao-Txiki bertsolaria (Jose Migel Iztueta Kortajarena, 1926-1993) Lazkao mendiko (Lazkao) Albaliñe baserrian jaio zen. 17 urterekin jaialdi eta txapelketetan abesten hasi zen, nahiz eta bere buru - argitasuna ongien herrietako jaietan eta bazkalondoetan zuketzen zuen. Testu honetan zehar behin eta berriz aipatua, Guadalupeko zelaian San Isidroren ospakizunetan parte hartu zuen. (Argazkia: Andrés Arlanzón. Oñatiko Udala. Gure Gipuzkoa CC).

falta, gerriko bat eta bandolera moduan jarritako poltsa bat darama.

Bere oinetan, normalean, lehen aipatu dugun miraria irudikatzen duen eskultura talde independente txiki bat jartzen da: **hegodun aingeru batek lurra goldatzen duten idiak gidatzen ditu.**

Serieko irudia da, egurrezko oreka moldekatuz egina, kristalezko begiak ditu eta "El Arte Cristiano", Olot (Girona), tailerrean artisauek apaindua dago. Tailerra, 1880. urtean "Vayreda, Berga y Cia" izenpean sortu zen.

Jatorrizko moldeak, "olotina eskola" ospetsuko eskultoreek aipatutako tailerarentzat espresuki egin zen. Apaingarri zein tamaina ezberdineko antzeko irudiak eliza eta ermitetan zein saltoki espezializatueta ere aurki ditzakegu.

Irudiaren oinarrian, normalean, lehen aipatu dugun miraria irudikatzen duen eskultura talde independente txiki bat jartzen da: **hegodun aingeru batek lurra goldatzen duten idiak gidatzen ditu.**

Egurrezko anda batzuen gainean jarritako irudia santutegian maiatzak 15ean aurrera eramaten den eukaristiaren ospakizunaren buru izango da.

BIBLIOGRAFIA

BEREAU, J.J. *San Isidro*. Hondarribia aldizkarian, ekaina, 1988.

BEREAU, J.J. *San Isidro eguna Guadalupen*. Hondarribia aldizkarian, Maiatza - ekaina, 1989.

FERNÁNDEZ MONTES, Matilde. *San Isidro, de labrador medieval a patrón renacentista y barroco de la Villa y Corte*. - Revista de Dialectología y Tradiciones Populares. - 56. liburukia (2001), 41-95 or.

FERNÁNDEZ MONTES, Matilde. *Isidro, el varón de Dios, como modelo de sincretismo religioso en la Edad Media*. Revista de Dialectología y Tradiciones Populares. 54. liburukia (1999), 7-51 or.

1 JUAN, DIÁCONO. *San Isidroren mirariak: XIII. Mendea / Fidel Fitaren transkripzioa, Quintín Aldeak gainbegiratua; Pilar Sequerok eta Tomás Gonzálezek itzulia*. - Madril. Artzapezpikua, 1993. - Madrilgo Almuđenako katedralaren Museoan kontserbatzen den eskuizkribuaren faksimile-erreproduktzioa barne hartzen du. - 155 or.

ORIHUELA MAESO, M., *Iconografía San Isidro y Santa María de la Cabeza*. - Madrilgo Udaletxeko Museoaren, Artxiboaren eta Liburutegiaren aldizkaria, 6. zenb., 1980, 27-45 or.

NOGUERAS, I. *San Isidro, baserriarren patroia handia*. Hondarribia aldizkarian, Apirila, 1998.

PORTU, Florentino, JAUREGI, Mikel eta GUEVARA, Kote. *Beste Jaiak*. Hondarribia: Hondarribiko Udala, 2010.



Guadalupeko prozesioari buruzko erreferentzia eta argazki laburrak, maiatzari dagozkionak, 1980ko hamarkadatik, Hondarribia aldizkarian urtero lor daitezke.



IRUDIA
eta mirariak

ASTOA BABESTEKO EZ DA ELIZATIK IRTETEN ISIDROREN MIRARIA, San Isidro Kodearen transkripzio partziala eta itzulpena¹

Udako jai egun batean, Jainkoaren gizona, bere ohituraren arabera, eguerdia pasata bere otoitzak Jainkoari eskaintzera Santa Maria Magdalena elizan sartu zen. Eta otoitzean adeitasunez jarraitzen zuen bitartean, gazte batzuk agertu ziren, eta hauek, presaka, honako berri hau jakinarazten zioten: “Altxa zaitezte, aita Isidro, eta ahalik eta lasterren joan zaitezte, otso irenslere batek zuen astoa jazartzen baitu eta, heriotzaz zauritu aurretik, eraso egiten dio”. Orduan Jainkoaren gizonak erantzun zien: “Zoazte bakean haurrak; Jaunaren nahia egin dadila”. Eta otoitza bukatu ondoren, abisu emandako arriskuarekin zer gertatu zen ikustera irten zen, eta bere astoa libre eta zauririk gabe aurkitu zuen. Arrazoi honegatik, Jainkotasunak susperturik, Santa Maria Magdalenaren elizara Jainkoari eskerrak ematera itzuli zen, honen errukiak gizakiak eta piztiak laguntzen baititu ...

USO BATZUK ELIKATU ONDOREN GARIA BIDERKATZEAREN MIRARIA. San Isidro Kodearen transkripzio partziala eta itzulpena 1

... Karitatearen graziak hainbestearino sutzen baitzuen eta maitasun jainkotiarrean erretzen zen, non, bere ahalmenen arabera, gizonak ez ezik, aberats ez bazen ere, ezer ez balu bezala eta dena izango balu bezala, gosea eta hotza jasaten zuten hegaztiak ere elikatzen zituen. Eta hala gertatu zen, neguko egun batean, elurrak lurra estaltzen zuela, bere seme txikiarekin batera garia ehotzera zihoala, uso talde bat ikusi zuela zuhaitzen adarretan pausatutik, eta, gose luzeegiak hiltzeko arriskuan zeudela ohartuta, haietaz urrikalduz, elurra lurretik aldendu zuela bere esku eta oinekin, eta ugaritasuna eman ziola bere oinetarako mailegatu zuen gariari. Bere lagun batek, hau ikustean, haserretu egin zen, eta, mofen artean, Isidro zoriontsua ergeltzat jo zuen garia xahutzeagatik. Hala ere, errotara iristean, Isidroren zakuan ez zen gariaren txikiagotzerik aurkitu; aitzitik, miraria dena, irina hainbestearino hasi zen, non bi gizonekhaien zakuak gainezka bete egin zituzten, lehen ia erdira zeudenak ...

¹ JUAN, DIÁCONO. San Isidroren mirariak: XIII. Mendea / Fidel Fitaren transkripzioa, Quintín Aldeak gainbegiratua; Pilar Sequerok eta Tomás Gonzálezek itzulia. – Madril. Artzapezpikua, 1993. – Madrilgo Almudenako katedralaren Museoan kontserbatzen den eskuizkribuaren faksimile-erreproduktzioa barne hartzen du. – 155 or.

GUADALUPEKO SANTUTEGIKO EZKERREKO ERRETAULA

Irudiak ez dira jatorrizko erretaularen zati. San Sebastianen irudiaren azpian dagoen kartelan honako hau irakur daiteke:

San Sebastian loriatsuaren zeharkako irudiak Martin Saenz de Zuluaga 1507an bere kontura eginarazi zuen, eta 1648koa bere berbiloba Pedro Zuluaga kapitainak berreraiki zuen, haren biloba Gabriel Joséph de Zuluaga eta Moyua jaun txit gorenak bere Maiestatearen armadako Teniente Jenerala, 1742an hiri honen lizentziarekin eta elizaren zaindaria izanik, urreztatze agindu zion. 1896koa ARESTIAN AIPATUTAKOEN OINORDEKO ZUZENA ETA JARAUNSLEAZEN SOFIA PEREZ TAFALLA ETA ZULUAGA DE MANSO ANDERE TXIT PRESTUAREN ESPENTSEI ESKER BERRITU ETA URREZTATU ZEN.



KOFRADIA BATEKO OSPAKIZUN BATEN BITARTEAN ELIKAGAIAK BIDERKATZEAREN MIRARIA, San Isidro Kodearen transkripzio partziala eta itzulpena¹

... Kofrade bat zegoen kofradia batekoen artean. Eta egun jakin batean anaitasunezko bazkari bat egitea erabaki zuten, Jainkoaren gizona, Isidro, gonbidatu zuten, otoitz egiteko elizak bisitatzera joan ohi zenez, gehiegi atzeratu zen. Oturuntza bukatutakoan iritsi zen; eta errukiatatik, kofradiako atean, festa jendetsuaren limosnaren zain aurkitu zituen gizajo batzuk ere berarekin jangelan sartu zituen. Eta kofradiako kideetako batzuk, ikuskizun hau ikustean, honela mintzatu ziren: "Jainkoaren gizon bedeinkatua, ezer geratzen ez denean, gorde zaizun anoa izan ezik, gizajo horiek zurekin sartzea miresgarria da". Isidrok, hitz hauek pazientziaz jasoz, honela erantzun zuen: "Jainkoak eman didana, gure artean erdibana banatuko dugu". Orduan, mahaia zerbitzatzen zutenak lapikora joan ziren berarentzat erreserbatutako anoa ekartzera, eta haragi gisatuz beterik aurkitu zuten, eta, bat-batean egindako miraria ikustean, txunditurik geratu ziren, eta, aldi batez isilik geratu ziren, albiste egokiera hoberako gordez, eta poztazun handiz, nazkatu arte, bai Jainkoaren gizona, bai harekin zihoanak ere, biziki itxoiten ari ziren janaria zerbitzatu zien. Bazkari oparoa izan zen, eta soberakinekin beste behartsu batzuk ere gonbidatu zituzten. Oturuntza amaitutakoan, Jainkoaren zerbitzariak eskuak zerura jaso eta, ongileak aipatzeari utzi gabe, Jainkoaren izena bedeinkatu zuen. Eta gero, mahaikideei agur esan ondoren, berehala Santa Maria Magdalena elizara Jainkoari eskerrak ematera joan zen joan zen, une egokian bere dohainak bere beharretan erruki handiz lagundu baitzion eta...

BERE ETXEAN BEHARTSU BATI JATEN EMATEKO ELIKAGAIAK BIDERKATZEAREN MIRARIA, San Isidro Kodearen transkripzio partziala eta itzulpena¹

... Larunbat batean, behartsu batzuei beren sukaldeko eltzetik, limosna elizkoi bat ahal zuenaren proportzioan eman ondoren, dohakabe bat agertu zen bat-batean limosnaren bat emateko eskatuz. Hala ere, Isidrok, bere gehiegizko errukiak eraginda, ezer ez zuenez hari emateko, apalki bere emazteari erregutu zion: - Jainkoarren, emazte maite-maitea, jatekorik geratzen bada, gizagaixo honi limosna bezala emaiozu - erregutu zion. Baina berak, ezer geratu ez zela jakinik, sukaldeko lapikoa hutsik zegoela erakutsi nahi izan zion zuzenean; hala ere, Jainkoaren asmo guztiz jainkotiarrak bere morroi jainkotiarraren nahia ase nahi zuenez, emakumeak eltzeta janariz bete aurreratu zuen. Eta halako miraria bat-batean ikustean, une batez mututu egin zen, baina hain mirari nabariagatik pozez beterik eta jainkozko mesedeaz konbentziturik, gizagaixoari jaten eman zion atsegin eta oparo ...

¹ JUAN, DIÁCONO. San Isidroren mirariak: XIII. Mendea / Fidel Fitaren transkripzioa, Quintín Aldeak gainbegiratu; Pilar Sequerok eta Tomás Gonzálezek itzulia. – Madril. Artzapezpikua, 1993. – Madrileko Almudenako katedralaren Museoan kontserbatzen den eskuizkribuaren faksimile-erreproduktzioa barne hartzen du. – 155 or.

SAN ISIDRO LABORARIA
Aurrez aurreko ikuspegia



ISIDRO ALBOAN DAGOELA BAKARRIK GOLDATZEN DUTEN IGITAIEN MIRARIA,

San Isidro Kodearen transkripzio partziala eta itzulpena¹

Baina ugazaba hura, zeinaren agindupean Isidro zegoen, Jainkoaren gizonak zer egiten zuen egiaztatzeko asmotan, egun batean oso goiz jaiki eta bidean jarri zen, kobazulo baten babesean ezkutatu zen bere begiekin egiten zuena ikusteko (...) bat-batean zelai berean ikusi zituen, Jainkoaren botereak hala aginduta, laborantz-lana egiten eta jaberik gabe, bi idi zuri zelaia azkar eta erabakitasunez lantzen.

Ikuspen horretaz oharturik eta txunditurik, (...) Isidrori, Jainkoaren zerbitzariari, honako galdera hau egin zion: “Arren eskatzen dizut, Jainkoarren, zuk zintzo zerbitzatzen duzunagatik, zure landa-lanean lehentxeago zurekin zeuden laguntzaileak ikusten uztea. Zeren beste batzuk ikusi baititut zurekin lanean laguntzen, baina bat-batean, begien itxi-ireki batean, nire begien bistatik desagertu dira”. Orduan Jainkoaren gizakume zintzoak, oso kontziente, sinpletasunez honela erantzun zuen: “Jainkoaren aurrean, nire ahalmenen arabera zerbitzatzen dudana, Jainkoa izan ezik, laborantza honetan ez dudala ez deitu ez ikusi laguntzailerik zintzotasunez adierazten dizut. Hari deit eta erregutzen diot eta beti laguntza bezala diot”.

Orduan, jabeak, bihotzean hunkiturik ikusitako guazengatik eta zerugatik argituta, jainkozko grazia Jainkoaren morroiari zegokiola ulertu zuen. Eta honela, landatik alde egin baino lehentxeago, esan zion: “lausengariek edo txutxu-mutxuek esan zidaten guztia erdeinatzen dut; hemendik aurrera, zelai honetan daukadan guztia zure esku uzten dut, eta baita egin behar den guztia ere, zure erabakimenean uzten dut “...

¹ JUAN, DIÁCONO. San Isidroren mirariak: XIII. Mendea / Fidel Fitaren transkripzioa, Quintín Aldeak gainbegiratua; Pilar Sequerok eta Tomás Gonzálezek itzulia. – Madril. Artzapezpikua, 1993. – Madriloko Almudenako katedralaren Museoan kontserbatzen den eskuizkribuaren faksimile-erreproduktzioa barne hartzen du. – 155 or.

SAN ISIDRO LABORARIA


Alboko bista, bakarrik goldatzen duten igitaien miraria albo batetik irudikatuta.



Hondarribiko San Isidro egunari buruz prestatu dugun informazio hau zuen interesekoa izatea espero dugu. Datuen bat eman nahi baduzu, e-mailez egin dezakezu:

armaplaza@armaplaza.eus

MAIATZA 2020





SAN ISIDRO
GUADALUPEKO
ZELAIAN



ARMA PLAZA
FUNDAZIOA



HONDARRIBIA